

Kuestionatu, eraldatu
NORMALIZATZAILEA DEN SISTEMA LEHERTU!

Maitasuna eta harreman afektibo sexualak nola eraiki eta elikatzen ditugun hausnartzeko eguna ere izan daiteke hau. Iraultza txiki-handiak eragin ditzagun, kolektiboan.

Maitale asko dituen, maitalerik ez duena, bikote harreman batean dagoena, ez dagoena; egoteko modu guzti horiei izaera politikoa ematean dago, hain zuzen, eraldaketa. Bakoitzak bizi dugun egoera, horrela dela eta horrela izango dela ziurgabetzat jotzean sortzen da eztanda. Harreman afektibo sexualen eta gainontzeko harremanen artean sortzen ditugun ranking horiek asko esaten dute sistemaz; alegia, nola banatzen ditugun denbora, planak eta sekretuak.

Plazerrez lehertu esan izan dugu, behin eta berriz, baina zer ostia da lehertu behar duguna? Leherketak gugandik urruti gertatzen dira maiz: banketxeetan, polizia komisaldegietan... Baina plazerrez lehertzerakoan, eztanda gure baitan ematen da (edo beharko luke) eta hori, *konpañeras*, konplexuagoa izaten da. Bada, egin dezagun borroka plazerrez: esperimentazioak, hausnarketak eta kolektiboan josteak sortzen duen zirrara bilatu eta eztanda!

Norbera zalantzan jarri gabe ez dago eraldaketarik. Honekin ez dugu esan nahi aldaketa ariketa indibidualetan oinarritzen denik, ez. Aitzitik, kolektiboan josten dugun hori, gure azalera eraman behar dugu, zerbait aldatuko badugu. Baina adi: eztanda ikusgarrienak ez dira izaten handiago edo sakonagoak. Ez da nahikoa esatearekin, lagun; Teoriak ondo daude, baina bizitza beste zerbait da.

Normalizatzailea den sistema honi planto egin behar diogu! Gure harreman afektibo sexualak, gure izaera edo kokapen identitarioak etengabe normaruntz eramaten dituen hori desobeditu! Inoiz ez da berandu bollera izatea erabakitzeke... Tanta txiki batek eragin dezake edalontzi batek gainezka egitea; hortaz, gutako bakoitzaren tanta txikien alde!

Kuestionatu, eraldatu
NORMALIZATZAILEA DEN SISTEMA LEHERTU!

Gora borroka feminista!

2021eko ekainaren 28a,
Euskal Herriko Bilgune Feminista